

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK**

3

**DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA**

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

*19/2014 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, aldatzen duena 2010eko ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu Araua, AP-1 eta AP-8 autobideak Gipuzkoako zatian 2010eko uztailaren 1etik aurrera erabiltzeko kanonak ezartzekoa.*

**GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK**

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «19/2014 Foru Araua, abenduaren 23koa, aldatzen duena 2010eko ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu Araua, AP-1 eta AP-8 autobideak Gipuzkoako zatian 2010eko uztailaren 1etik aurrera erabiltzeko kanonak ezartzekoa»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2014ko abenduaren 23a.—Martin Garitano Larrañaga, diputatu nagusia. (11731)

**HITZAURREA**

Bide azpiegiturak erabiltzeko kanona 2002ko urriaren 3ko 7/2002 Foru Arauaren bidez sortu eta arautu zen, eta haren ustiapena Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia SA foru sozietate publikoari dagokio.

Foru arau horretan xedatutakoa betez, 2010eko ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu Arauaren bidez, finkatu ziren Gipuzkoako Lurralde Historikoan AP-8 eta AP-1 autobideak erabiltzeagatik 2010eko uztailaren 1etik aplikagarri ziren kanonaren zenbatekoak; zeinak urtean behin eguneratzen diren Gipuzkoako Lurralde Historikoko ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorrak onartzerakoan.

Era berean, 4/2010 Foru Dekretu Arauaren 2. artikuluaurreikusten du zenbait deskontu aplikatzea ibilgailu arinetako erabiltzaile diren pertsona fisikoek hilean egindako bidaia kopuruaren arabera, baldin eta hainbat baldintza betetzen badituzte.

Halaber, 3. artikuluan kenkari gehigarria aurreikusten da deskontu planari atxikitako erabiltzaileentzat, baldin eta Donostiako Bigarren Ingurabidearekin lotutako ibilbide batzuetan 24 orduko epean joan-etorriko bidaia egiten badituzte.

Bi deskontu mota horiek batera aplika daitezke, baldin eta teleordainketako gailua erabiltzen bada, betiere araudian aurreikusitako baldintzak beteta.

Azkenik, 2012ko azaroaren 14ko 8/2012 Foru Arauaren bidez, deskontu plana hobetzeko asmoz hileko gehieneko gastu muga bat ezarri zen, hori ere planari atxikitako erabiltzaileei aplikatzekoa.

Deskontuak, kenkari gehigarria eta aipatutako gehieneko gastu muga ezartzeko eskubidea izateko baldintzak araututa daude 2010eko ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu Arauaren 2. artikuluko bigarren atalean.

**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**

*NORMA FORAL 19/2014, de 23 de diciembre, por la que se modifica el Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio, por el que se fijan las cuantías del canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa a partir del 1 de julio de 2010.*

**EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA**

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 19/2014, de 23 de diciembre, por la que se modifica el Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio, por el que se fijan las cuantías del canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa a partir del 1 de julio de 2010», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 23 de diciembre de 2014.—El diputado general, Martin Garitano Larrañaga. (11731)

**PREÁMBULO**

Por Norma Foral 7/2002, de 3 de octubre, se creó y reguló el canon de utilización de las infraestructuras viarias, cuya explotación corresponde a la sociedad pública foral «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, S.A».

En cumplimiento de la mencionada norma foral, por Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio, se fijaron las cuantías del canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa aplicables a partir del 1 de julio de 2010; cuantías que anualmente son objeto de actualización con ocasión de la aprobación de los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para cada ejercicio económico.

Asimismo, el artículo 2 del citado Decreto Foral-Norma 4/2010 prevé la aplicación de descuentos crecientes en función del uso mensual efectuado por personas físicas usuarias de vehículos ligeros que cumplan una serie de requisitos.

Igualmente, su artículo 3 contempla una deducción adicional para las personas usuarias adheridas al plan de descuentos que en determinados recorridos ligados al Segundo Cinturón de San Sebastián realicen en menos de 24 horas viajes de ida y vuelta.

Ambos tipos de descuentos son de aplicación consecutiva y siempre que, cumpliendo los requisitos previstos en la normativa, se utilice el dispositivo de telepeaje.

Finalmente, por Norma Foral 8/2012, de 14 de noviembre, con el fin de mejorar el plan de descuentos se fijó un tope de gasto máximo mensual, también de aplicación a las personas usuarias adheridas al plan.

Las condiciones para tener derecho a los descuentos, a la deducción adicional así como al tope máximo de gasto referidos tiene su regulación en el apartado segundo del artículo 2 del Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio.

Deskontu horiek aplikatu diren urteetan, kontu planari atxikitako erabiltzaileek egiten dituzten hainbat akats antzeman dira, zuzendu eta eragotzi behar direnak, kanonaren diru-bilketa eraginkorra izan dadin.

Batetik, kontuak izateko baldintzak bete behar dira gailu telematikoa erabiltzen den aldi guztian, eta ez soilik eskatzen den unean bakarrik, indarrean dagoen araudiak aurreikusten duen moduan.

Era berean, identifikazioko eta ordainketako gailu telemati-koaren erabiltzaile bakoitzak gailu hori ibilgailu bakarretako era-bili beharko du eta, gainera, ibilgailu horren jabea izan beharko du, pertsona batek kontu eta kenkariak pila ez ditzan hainbat ibilgailu erabiltzeagatik.

Bestalde, kontu planaren onurak dituen ibilgailuak soilik erabilera partikularra izan beharko du, irabazi asmorik gabekoa; beraz, ordainketa gailua duen ibilgailua ezingo da erabili jar-duera profesional, enpresarial edo ekonomiko baterako.

Azkenik, kontu planaren onurak izan ahal izateko bete-beharrak dira zirkulazio baimena indarrean edukitzea, kanona-ren ordainketa egunean izatea eta TAG gailu telematiakoaren era-bileraren inguruan Bidegi SAK eskatzen dituen gainerako beharkizunak betetzea.

Horrenbestez, 2010eko ekainaren 15eko 4/2010 Foru De-kretu Arauaren 2. artikulua aldatu behar da, arau horretan aurreikusten diren kontuak aplikatzeko eskubidea izateko bete behar diren beharkizun eta baldintzei dagokienez.

*Artikulu bakarra. Aldatzea 2010eko ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu Araua, AP-1 eta AP-8 autobideak Gipuzkoako zatian 2010eko uztailaren 1etik aurrera erabiltzeko kanonak ezartzekoa.*

2010eko ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu Araua modu honetan aldatzen da:

**Bat.** Honela geratzen da idatzita 2. artikulua 2. aparta-tua:

«2. Foru Dekretu Arauan aurreikusitako kontuak apli-katzeko eskubidea izateko, AP-8 eta AP-1 autobideetako erabi-tzaileek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Jarduera profesional, enpresarial edo ekonomiko batera atxikia ez dagoen ibilgailu arin baten ohiko erabiltzailea eta jabedun den pertsona fisikoa izatea.
- b) Kontu planari atxikitzeko eskubidea ematen duen teleordainketako (TAG) gailu bat edukitzea. Gailu hori pertso-nala eta besterenezina izango da.
- c) Teleordainketako (TAG) gailua ibilgailu arin bakarrari lo-tuta egotea eta ibilgailu horren gida baimena indarrean izatea.
- d) Xede horretarako gaitutako ordainketa bitarteko baten edo bankuko kontu baten titularrak izatea.
- e) Gipuzkoako udalerriren batean erroldatuta egotea.
- f) Gipuzkoako Foru Ogasunarekin zerga betebeharretan egunean egotea.
- g) Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentziaren azpiegitu-rak erabiltzeko kanonaren ordainketa egunean egotea, eta teleordainketako (TAG) gailua erabiltzeko ezartzen diren gaine-rako betebeharrak betetzea.

Era berean, kontuak duen gailu telematikoa emango zaie gipuzkoar egoiliarrek diren eta goian aipatutako baldintza guz-tiak betetzen dituzten pertsoneri, ibilgailurik jabetzan ez eduki-arren, ibilgailu arin baten ohiko erabiltzaileak direla egiaztatzen badute».

A lo largo de los años en que se han venido aplicando dichos descuentos se ha observado una serie de deficiencias por parte de las personas usuarias adheridas al plan de descuentos que deben ser corregidas y combatidas a fin de lograr una recauda-ción eficiente y eficaz del canon.

Por una parte, se hace necesario extender el cumplimiento de las condiciones para disfrutar de los descuentos a todo el tiempo en que se hace uso del dispositivo telemático, y no solo al momento de la solicitud, tal y como prevé la normativa en vigor.

Asimismo, cada persona usuaria del dispositivo telemático de identificación y pago deberá asociar su utilización a un único vehículo y ser propietaria del mismo, de manera que una misma persona no pueda acumular descuentos y deducciones con el uso de distintos vehículos.

Por otra parte, el uso del vehículo que se beneficie del plan de descuentos debe responder a un uso meramente particular y sin ánimo de lucro, de manera que el vehículo que se vincule al uso del dispositivo de pago no podrá estar afecto a actividad profesional, empresarial o económica alguna.

Finalmente, se incluyen como requisitos para poder disfru-tar del plan de descuentos tener el permiso de circulación en vigor y estar al corriente del pago del canon y cumplir con las demás obligaciones que exija Bidegi, SA en relación al uso del dispositivo telemático TAG.

Por todo ello, se hace necesario modificar el artículo 2 del Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio, en lo que se refiere a los requisitos y condiciones que deben cumplirse para tener derecho a la aplicación de los descuentos previstos en dicho Decreto Foral-Norma.

*Artículo único. Modificación del Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio, por el que se fijan las cuantías del canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa a partir del 1 de julio de 2010.*

El Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio, se modifica en los siguientes términos:

**Uno.** El apartado 2 del artículo 2 queda redactado del siguiente modo:

«2. Para tener derecho a la aplicación de los descuentos previstos en el presente Decreto Foral-Norma, la persona usuaria de las autopistas AP-8 y AP-1 deberá cumplir las condiciones que seguidamente se exponen:

- a) Ser persona física usuaria habitual y propietaria de un vehículo ligero y no estar afecto el mismo a actividad profesio-nal, empresarial o económica alguna.
- b) Disponer de un dispositivo telemático de pago (TAG) habilitado para el derecho de acceso al plan de descuento. Este dispositivo será personal e intransferible.
- c) Tener vinculado el dispositivo telemático (TAG) a un único vehículo ligero y tener el permiso de circulación en vigor.
- d) Ser titular de un medio de pago o cuenta bancaria habi-litada al efecto.
- e) Estar empadronada en algún municipio de Gipuzkoa.
- f) Estar al corriente de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral de Gipuzkoa.
- g) Estar al corriente del pago del canon de utilización de infraestructuras con «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, S.A.» y cumplir con las demás obligaciones exigidas en relación al uso del dispositi-vo telemático (TAG).

Asimismo, se concederá el dispositivo telemático con des-cuento a aquellas personas residentes guipuzcoanas que reu-niendo todos los requisitos arriba mencionados, no siendo pro-pietarias de vehículo alguno, acrediten ser usuarias habituales de un vehículo ligero».

*Bi.* 2. artikuluari eduki hau duen 3. zenbakia eranstean zaio:

«3. Baldintza horiek bete beharko dira deskontu aldiak irauten duen denbora guztian. Horrela egin ezean, deskontuak, kenkari gehigarria eta hileko gehieneko gastu muga ezartzeko eskubidea galduko da eta, ondorioz, baliogabetu egingo dira baldintzak bete ez dituen aldiak sortu dituen eta aplikatu gabe dauden deskontu eta kenkari gehigarri guztiak. Halaber, denboraldi horretan egin diren deskontuak eta kenkariak itzuli beharko dira».

#### AMAIERAKO XEDAPENA

Foru arau hau 2015eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

*Dos.* Se añade un nuevo número con el ordinal 3, al artículo 2 con la siguiente redacción:

«3. El cumplimiento de dichos requisitos deberá mantenerse durante todo el período de descuento. Su incumplimiento será motivo para la pérdida del derecho a los descuentos, a la deducción adicional y al tope de gasto máximo mensual, dando lugar a la anulación de todos los descuentos y deducciones adicionales a los que tuviere derecho y que hubiere devengado durante el periodo de incumplimiento y que aun no se hubieran aplicado. Igualmente, procederá la devolución de aquellos descuentos y deducciones ya practicados en dicho período».

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente norma foral entrará en vigor el 1 de enero de 2015.